

Prensa oharra

Nota de prensa



BERDINTASUNEN ZINEGOTZITZAK ONARTU DU MILIOI BAT EURO EMATEA LANKIDETZA, SENTSIBILIZAZIO ETA HEZKUNTZA PROIEKTUEI LAGUNTZEKO

Donostiako Udaleko Gobernu Batzarrak bihar onartuko ditu Berdintasuneko eta Lankidetzako Zinegotzitzak proposatutako dirulaguntza batzuk, hainbat erakunde eta elkarte aurkeztutako sentsibilizazio, hezkuntza eta elkartasun proiektuei laguntzeko.

Berdintasuneko eta Elkartasuneko zinegotziak, Duñike Agirrezabalaga sozialistak, esan duenez, "beste behin ere, Donostiako Udalak hainbat proiektu sustatu eta diruz lagundu nahi ditu; ekimen solidarioak gauzatzeko proiektuak dira, nazioarteko lankidetzaren behar duten helmugetan egiten direnak.

Dirulaguntzak guztira 1.005.000 euro dira, bi lerrotan banatuta. Batetik, gizartea eraldatzeko sentsibilizazioa eta hezkuntza, eta, bestetik, garapenerako lankidetzaren laguntza.

Lehen lerroko dirulaguntzak -301.606 euro- Alboan Fundazioa, Mugarik gabeko Ekonomistak, Medicus Mundi, Haurralde Fundazioa, Mugarik Gabe, Saretuz, Emaus Fundazioa, Mundubat, Mugen Gaietik, Sodepaz eta antzeko erakundeek aurkeztutako proiektuetarako dira. Erakunde horiek hainbat proiektu garatu nahi dituzte gure hirian, herritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatzeko gure ohiturek, azturek kontsumoek eta, oro har, bizimoduak beste toki batzuetan sortzen dituzten ondorioez eta beste komunitate batzuegan duten eraginez.

Hona Udalaren laguntzaren xede diren proiektuetako batzuk: kontsumo arduratsuz kontzientziatzeko programak, elikadura-burujabetza elkarte gastronomikoetan, emakumeenganako indarkeriarik gabeko bizi bati buruzko programak eta bazterketari, mugei eta militarizazioari buruzko kontzientziaketa.

Bigarren lerroko dirulaguntzak -703.748 euro-, erakunde hauek aurkeztutako proiektuetarako dira: Calcuta Ondoan, Mundubat, Mugen Gaietik, Mugarik Gabeko, Alboan Fundazioa, Medicus Mundi, Nazioarteko Bake Brigadak, Euskadi-Bakea eta Elkartasuna Fundazioa, Bakerako Lankidetzaren Batzarra, TAU Fundazioa, Sodepaz, Prosalus eta Haurralde Fundazioa.

Prensa oharra

Nota de prensa



Hona proiektuetako batzuk: genero-berdintasunerako programak, El Salvadorren eta Indiaren hegoaldean; emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko programak, Bangaloren; berdintasuna eta ahalduntzea Palestinako lurralde okupatueta eta Nikaragua, Kolonia, Bolivia nahiz Peruko alde batzuetan. Proiektu horietan, erasandako gunetan lan egiten da, garapen komunitario nahiz pertsonalei laguntzeko baliabideak eta prestakuntza emanez, gero eta autonomia handiagoa izan dezaten, eta emakumeen papera bultzatuz, aukera berdintasuna bermatzen duen ikuspegi batetik.